# Gizarte zerbitzuetan topa ditzakezun beste zerbitzu eta prestazio batzuk

NAGUSIEN ETXEAK hiru dira, eta animazio soziokulturaleko jarduera anitz zein beste zerbitzu batzuk eskaintzen dizkiegu udalerrian bizi diren adineko pertsonei.





GETXO LAGUNKOIA proiektuak Getxo adinekoekin atsegina den hiri bihurtzeko behar diren urratsak eman nahi ditu. Hiri eraikuntzako proiektu bat da, udalaren zeharkako ikuspegia eta herritarren parte-hartzea behar dituena.

Getxon bizi diren ETORKINENTZAKO informazio interesgarria. ELKARGUNE programak udalerriko harrerari zuzenean bideratutako jarduerak biltzen ditu (horri buruzko liburuxka dago). Gainera, **www.kaixo.getxo.eus** web orriak Getxoko bizilagunentzako errekurtsoei buruzko informazio osoa biltzen du. 7 hizkuntzetan kontsulta daiteke (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, txinera, errumaniera eta arabiera)

